

Menditarrak

Joxean Agirre

Goizero, Argiñanorenean ogia erosi eta tarte bat egiten dut, batzuetan tarte bat baino gehiago, itsasoari begira eta begia zorroztuta ere; ez diot paisaiari akats bakar bat ere aurkitzen. Banator etxera eta idatzi dudan orrialdea begiratzen hastarekin bat ohartzen naiz hutsegitez beteta dagoela.

Lehen, egoera horren aurrean ordenagailua itzali eta Talaimendira jotzen nuen eta aldapan gora erabaki ohi nuen testua ezabatu eta kontakizuna nondik hasi.

Itxialdian sartu orduko ikusi nuen familian bi giza espezie ezberdin geundela. Kale zuloan jaiotakoak kexatzen dira, baina ez gure irrikarekin. Are gehiago esango dut, telelana egiten ari direnak eta bereziki emakumeak pozik ikusten ditut.

Aire librean hazitakook, aldiz, base-rrian jaioak, menditarrak garela ohartu naiz, *outdoors* erabatekoak, bezatzen edo domestikatzen zailak.

Erantsi horri nire familiako askok dugun akats bat, ibilian pentsatzeko ohitura, eta koadroa iluntzen hasten da. Badut etxeko bat azterketak iristen ziren bakoitzean oinetan kailuak izaten zituen. Nik bizpahiru ordu egin ditzaket mugitu gabe idazten, baina aditzondo baten falta aski dut altxatu eta ibilian hasi behar izateko. Aristotelesen ikasleek halako zerbait egiten zuten eta Montaignek ere ibilian idatzi omen zituen bere saiakera famatuak.

Eta zer egin daiteke itxialdian? Lehen egunetik hasi nintzen gimnasia birtualeko saio bat bazkalaurretik egiten. Pertsona batzuekin erraz enkariñatzen naiz eta *monitora* ondo erori zitzaidan. Gra-

zia egiten zidan «*quiero más, quiero más*» edo «*no te quedes a medias*» esaten zidanean. «Emakume honek ez nau ezagutzen», esaten nuen nirekiko eta topera egiten nituen ariketak. Baina eguneroko tratuak harremana hondatu egin du. Orain lizun puntua duten esaldi horiekin hasten denean «isildu hadi ipurtandia» eta horrelakoak erantzuten dizkiot.

Hori gutxitxo izango zela-eta, gaztetan sekta batean ikasitako taula paleolitiko bat ere egiten dut segidan, peoleolitiko, bi harri handi esku banatan hartuta egiten delako. Eta kexatzen hasten nintzenean isiltzeko esaten zidaten, nire adineko asko beste mundura joan direlako. Argudio hain katastrofisten aurrean, noski, isildu egiten nintzen. Horregatik, gaurtik aurrera ordubetez kirola egiteko aukerak zerua zabaldu dit. •

Normaltasun berria

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Igaro dira zenbait aste Espainian eta Frantzian alarma eta konfinamendu egoerak ezarri zituztenetik. Zuzenean eragin digu horrek euskal herritarroi. Orain, Covid19aren kutsatze, heriotza zein sendatze datuei erreparatuta, salbuespen egoera horiek arintzeko trantsizio planak aurkeztu dituzte. “Normaltasun berrirako” trantsizioa iragarri dute.

Hitzen hautaketa ez dela ausazkoa esango nuke. Agintariekin ere egin dute trantsizioa beren hizkeran, pandemiaren aurkako gerra egoerako hiztegia al-

de batera utzita. Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidenteari, esaterako, bidaiari kutsua eman dio joan den astearteko hitzartzeari: «Zeharkaldi bat abiatzera goaz, eta ez dugu gidatuko gaituen GPSrik eskura, existitzen ez delako».

Ez nago erabat ados. Egungo egoeratik irteteko trantsizioa behar duela usate dut, baina “normaltasun berri” izendatu duten horretarako bidea oso argi dutelakoan nago. Eskubideen murrizketa gogorra etorriko dela, merkaturaren mesedetan, langileen eskubideak

urratuko direla. Kaleko bizitzak mugatuta segituko duen artean, kontsumitzeko aukera eskubide gisa salduko dīgutela.

Beraz, “normaltasunean” baino, “berrian” jarriko nuke indarra. Nahiko nuke herritarrok protagonismoa hartzea eta egoera berriaz erabakitzeko aukera izatea. Ongizatearen izenean, agintarien neurriak bere horretan irentsi ordez, ditxosozko trantsizioa ahaldundutze prozesu gisa baliatzea. Ez diezagutela sendabidez moztututako gaixotasun are okerragorik txertatu •